

# Azken intsumisioa, alkate jauna

**INTSUMISIOA.** Imanol Murua Gipuzkoako Diputatu nagusi ohia eta Zarauzko auzapez izandakoa epaitu dute Donostian, Armadari laguntza ez emateagatik

Iker Aranburu | DONOSTIA

IMANOL MURUA

**A**lkatate jauna edo diputatu jauna tratamenduetara ohituta egon ondoren, atzo beste bat entzun zuen Imanol Muruak: «akusatu jauna». 12 urtez Zarauzko alkate eta beste sei urtez Gipuzkoako diputatu nagusia izan ondoren, akusatuen aulkian eseri behar izan zuen Muruak, intsumisio delituaz akusatuta.

Haserre zegoen Murua eta ez da harritzekoa, berari egokitu baitzaio Espainiako Armadari ez laguntzeagatik epaitutako azken pertsona izatea. Hala ere, epai aretotik kanpo ez zuen umorea galdu eta kartzelara bisitan joandakoan ogitartekoa ez ahazteko eskatu zien Gipuzkoako Auzitegi Nagusian bildutako kazetariei.

Muruaren aurretik Hego Euskal Herriko dozenaka alkate epaitu izan dituzte Armadari laguntza ez emateaz akusatuta —horien artean EA bere alderdiko 13—, eta batzuk aldi baterako inhabilitazioarekin zigortu dituzte.

Kontua da intsumisioa jada ez dela delitu Hego Euskal Herrian, Espainiako Gobernuak otsailaren 1eko Ministroen Kontseiluan erabaki baitzuen intsumisioa zigorgabetzea eta ezarritako zigorrak baliogabetea. Kuartelak utzi zituzten lau euskal herritar preso daude —hirugarren graduana—, baina aurki dira aske geratzekoak.

## Bermea ordaindu beharra

«Anakronismo» hitzarekin laburtu zuen Muruak bere aurkako auzia eta, beste akusatuekin alderatuta, diskriminazioa jasan duela ziurtatu zuen Gipuzkoako batzarkideak. Izan ere, gainontzeko alkateek ez bezala, Muruak 1,4 milioi pezetako bermea ordaindu behar izan zuen 1998an. «Zer uste zuten bada, ihes egingo nuela droga trafikatzaille baten moduan? Ez dut izenik eman nahi, baina batzuei ez zaie bermerik eskatzen nahiz eta benetako delituak egin dituzten», deklaratu zuen.

**«Nire kontzientzia ez zegoen oker, azkenean arrazoa eman didatelako intsumisioa zigorgabetzean»**


Legea hautsi zuenik ez zekielarik adierazi zuen Muruak epailearen aurrean, baina horren gainetik, bere eginbeharra bete besterik ez zuela egin gaineratu zuen. «Pertsonalki, bakearen aldekoa eta indarkeriaren aurkako izan naiz beti eta intsumisioa ere horrelakoa da. Nire kontzientzia ez zegoen oker, azkenean arrazoa eman didatelako intsumisioa zigorgabetzean». EAko kide gisa, bere alderdiak intsumisioa sustatzeko erabakia hartu zuela eta programa horrekin 1995ean Zarauzko alkate izendatu zutela gogoratu zuen. «Intsumisioei lagundu izan ez banie, hauteskunde iruzurra egingo nuen», gehitu zuen.

## Hiru urteko inhabilitazioa eskatu du fiskalak

Zarauzko udal batzarrak 1996ko maiatzean erabaki zuen Espainiako Armadari ez laguntzea eta, hortaz, soldadutza egin behar zuten herriko gazteen zerrenda ez ematea. 1997ko abuztuan, ordea, Armadak zerrenda eskatu zuen, «probokazio hutsagatik», zerrenda hori jada eskuratu baitzuten bake epaitegien bidez.

Justiziari laguntza ukatzea egotzi zion atzo fiskalak eta hiru urteko inhabilitazioa eta 16 hilabeteko isuna (15 euro eguneko) eskatu zuen Gipuzkoako Ahaldu Nagusi izandakoarentzat (1986-91).

Txema Altolagirre defentsako abokatuak, berriz, Murua ez zigortzeko eskatu zuen, «intsumisioa delitu gisa desagertu denez, halakorik ezin daitekeelako egin». Gainera, Altolagirrek gogorarazi zuen akusatua moduko jarrerak izan zirela,



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Imanol Murua Gipuzkoako Auzitegiaren aurrean, atzo, alboetan Iñaki Galdos eta Onintza Lasa dituela.



XOUSE SIMAL

## Erreserbara pasatzeko gutunak erre dituzte Bilbon

Intsumisioek ez dute indulturik nahi eta ez dute onartzen Espainiako Armadaren profesionalizazioa ere. Atzo gazteak Armadaren erreserbara pasa dituztela iragartzen zuten gutun bi erre zituzten Bizkaiko Gobernu Militarren atean. Ekimen sinboliko horrekin batera hamar gutun entregatu zituzten egoitza militarrean haien jarrera banan-

banan argituz. Iñigo Bilbao Kakitzat taldeko kideak azaldu zuenez, kanpaina bat hasi nahi dute Armadaren eraspenera lortu asmoz. Horregatik, dei egin diete intsumisioa bultzatzen duten gazteei banan-banan uko egin diezaioten erreserbista izateari eta indultua eskatzeari. Atzokoa kanpainaren abiapuntua izan zen.

beste batzuen artean, «legea aldatu eta soldadutza desagerrarazi dutenak».

Eako hautetsi ugari bildu ziren Donostiako epaitegietan Muruari sustengua emateko. Han zeuden, beste batzuen artean, Esther Larrañaga Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburordea, Iñaki Alkiza Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidentea, Onintza Lasa parlamentaria, Iñaki Galdos Gipuzkoako EAko lehendakaria eta Maite Etxaniz Zarauzko alkatea.



## Alonsotegi Eleizateko Udala

### IRAGARKIA

Alkateak urtarilaren 31ko dataz hartutako 027/02 zk.ko Dekretuaren bidez erabaki zen hasieran aldaraztea Alonsotegiko «Erdiko» HBUrako Alonsotegi Desarrollo Inmobiliario, SLk sustaturiko Xehikapen Azterlana, berau hamabost (15) eguneko epean aztergai jarriko da.

Alonsotegin, 2002ko otsailaren 4an.

ALDI BATERAKO ALKATEA.

Izpta.: AITOR SANTISTEBAN ALDAMA.



## Errenteriako Udala

### INFORMAZIO OHARRA

Hirigintza, Azpiegitura, Zerbitzu eta Ingarugiro Saileko Batzordeak 2002ko otsailaren 1ean egindako bileran aldeko irizpena eman zion **Errenteria Udalari Hiri Ordenazioaren Plan Orokorren Aurrerakina** dokumentuari, 2002 urtarilaren Enrique Ponte Ordoki udal arkitektoak zuzendutako Plan Orokorren Bulegoak idatzia.

Horregatik jendea oroar jakinarazten gainean egon dadin jakinarazten da edozein pertsona interesatuak dokumentua aztertu ahal izango duela Hirigintza Sailean (Udaletxe 3. solairuan) goizeko 7,00etatik 15,00ra arte eta horreko balegokio iradokizunak aurkeztu.

Errenteria, 2002ko otsailaren 8a.  
Alkatea. Stua. Miguel Buen Lacambra.